

# Euskal literaturaren irakaskuntzaz hurbiltze kritikoa

(Critical approximation to the teaching of literature)

Urkizu, Patri

UNED. Dpto. Filología Clásica. Senda del Rey, s/n. 28040 Madrid

BIBLID [1137-4454 (2002), 19, 49-58]

---

*Euskal ereduak ikasteko sortutako lehen testutzat jo dezakegu 1761ean Agustin Kardaberazek plazaratu, Eusqueraren berri onac eta ondo escriptceco, ondo iracurteco, ta ondo itzegiteco erreglac. Halere XX. menderrate ez da euskal literatura irakatsiko taxuz. Bigarren Mundu-Gerlaren ondoren hasi arte Bordeleko unibertsitatean René Lafon eta Salamankakoan Koldo Mitxelena euskal literatura irakasten. 1980ean sortu ziren Euskal Herrian Baxiler Institutuetako lehen Euskara eta Euskal Literatura katedrak, eta ondoren munduan zehar gero eta hedadura handiagoa du euskal literaturaren irakaskintzak.*

*Giltza-Hitzak: Euskara. Euskal Literaturaren Historia.*

*Podemos considerar que Eusqueraren berri onac eta ondo escriptceco, ondo iracurteco, ta ondo itzegiteco erreglac publicado por Agustín Cardaveraz en 1761 constituye el primer texto creado para el aprendizaje de los modelos vascos. Sin embargo, hasta el siglo XX la literatura vasca no será convenientemente enseñada. Hasta que tras la Segunda Guerra Mundial, René Lafon en la universidad de Burdeos y Koldo Mitxelena en la de Salamanca no comenzaran a enseñar la literatura vasca. En 1980 se crearon las primeras cátedras de Lengua y Literatura Vasca en los Institutos de Bachiller de Euskal Herria y, a continuación, la enseñanza de la literatura vasca ha tenido una difusión creciente por el mundo.*

*Palabras Clave: Lengua vasca. Historia de la Literatura Vasca.*

*Nous pouvons considérer qu'Eusqueraren berri onac eta ondo escriptceco, ondo iracurteco, ta ondo itzegiteco erreglac publié par Agustin Cardaveraz en 1761 constitue le premier texte créé par l'apprentissage des modèles basques. Pourtant, jusqu'au XXe siècle la littérature basque ne sera pas convenablement enseignée, jusqu'à ce qu'après la Seconde Guerre Mondiale, René Lafon ne commence à enseigner la littérature basque à l'université de Bordeaux et Koldo Mitxelena à celle de Salamanque. En 1980 les premières chaires de Langue et Littérature Basque furent créées dans les Institutos de Bachiller (Instituts de Bacheliers) d'Euskal Herria et, ensuite, l'enseignement de la littérature basque a connu une diffusion croissante dans le monde.*

*Mots Clés: Langue basque. Histoire de la Littérature Basque.*

Euskal literatura idatziaren historia aski laburra bada, guk nahiko genukeen baino laburragoa eta ikasle zenbaitek gogo luketena baino zabalagoa, bere irakaskuntza oraindik murriztagoa da, eta halere argiz baino itzalez beteago, hots, egutera gutxi eta ospel anitzeko eremua dela esango nuke. Dena den, bere laburtasuna hala nola bere txokoetako itzalak eta argiak irizpide zuzen eta zorrotzez ezagutzekoak direla uste dugu behar bezala epaitu eta estimatu nahi badugu.

XVII. mendean Donibane Lohitzunen Elisabet Frantziako erreginak, 1615. urtean hain zuzen, eraikiarazi zuen frantziskotarren komentua, bertan predikari onak sor zitezen. Hor biltzen zen konpainia eder bat, eta antza denez, idazle euskaldun franko Donibane Lohitzune-Sara eskola osatu zutenak<sup>1</sup>, –Materre, Etxeberri Ziburukoa, Axular, Haranburu, Argainarats, ...–, eta berehala burura datorkidan galdera hau da. Fraidekume eta fraide gazteei sermoigintzan ikasi, trebatu eta aritzeko eta euskaraz misioak emateko euskal testuak irakasten ote zizkieten? Eta hala gertatu bazen, zein ote zituzten eredugarri?

Dudarik gabe, Biblia izanen zen irakurgairik nagusiena, hala nola, honen exegesiak. Bestalde, Vinsonek dioskunez, badakigu, sutara erlijio-gerrak zirela eta bota zuenak kontaturik, Baionako kaputxinoen komentuan bazeukatela Biblia osoa euskarara itzulirik XVII mendean.

Lapurditik barnealdera joaz, badirudi Dominique Bidegaray<sup>2</sup> frantziskotar baxenabartarrak eskatzen duenean XVII. mendean sos batzuk argitaratzeko prestatuak zituen Euskal Gramatika eta 500 orritik gora zeukan Hiztegi laukoizta (latina-euskera-frantsesa-gaztelania), hauen laguntzaile zitezkeela noski, literatur testu zenbait ere. Tamalez denak galduak ditugu.

Zuberoa aldean ere izan ziren predikari frantziskotar euskaldunak XVII. mendean, hala Nikolas eta Basile izeneko ozaztarrak, nola Frantzisko eta Jose Maria delakoak, mauletarrak azken biok<sup>3</sup>.

Eta Iparraldeaz soilik ez mintzatzearren badakigu Donostian famatuak zirela euskarazko sermoiak, eta zenbait predikariren euskara ere oso goraiatu zela. Non zuten euskara ikasi eta landu sermoigile ospetsu hauek? Zein erudutan ikasi? Erantzun zuzen eta zehatza ez jakin arren, demagun hauen artean ere Biblia eta bere exegesiak zitezkeela irakurgairik nagusienak.

XVIII. mende hasieran Bidegarayri gertatu gauza berdintsua gertatzen zaio ere Etxeberri Sarakoari. Beraz, tamalez, euskararen irakaskuntzarako egin la-

---

1. DARANATZ, J.B. (1935) "Le couvent de Récollets de Ciboure-Saint-Jean-de-Luz", *BSSLAB*.

2. DUBARAT, V. "Le Dictionnaire Basque et les Rudiments de P. Dominique Bidegaray, franciscain du couvent de Pau (1675-679)", *RIEV*, VIII, 6-16.

3. URKIZU, P. (1999) "Axularren garaiko sermoi argitaragabe bat: *Erunt signa in sole, et luna, et stellis, L. 2]., goure ginco omnipotentac...* Aurkezpena, oharra eta transkripzioa", *Lapur-dum IV', Numéro Spécial 1. Les lettres basques au temps d'Axular (1600-1650). Actes du colloque de Bayonne (12-13 avril 1999)*, Baiona, 187-213.

nak Urquijok argitaratu eta 1907an ez ziren plazaratu. Honek proposatzen duen eredia, ordea, argi dago, Axular baita.

Mende horretako euskal irakaskuntzaren eskasiaz ohartzeko adierazkorrak dira Larramendiren 1745eko hitzak, *Nada se lee ni escribe ni se enseña a los niños en Bascuence*. Bere ideiei jarraikiz, ordea, zenbait jesuita eta apaiz gizonak euskaraz idazteari heldu zioten eta Agustin Cardaberazek, adibidez, 1761ean *Eusqueraren berri onac ela ondo escribitceco, ondo iracurteco, ta ondo itzegiteco erreglac* plazaratu zuen, zeinek nolazpait esateko *Ars predicandi vasconice* moduko a egitea zuen helburu, bere beste xedetarik bat euskara kultur hizkuntza bezala aurkeztea eta eredu gisa naturaltasuna proposatzea zirelarik.

1775ean sortu zuen Peñafloidako Konteak *El Real Seminario de Vergara*, eta ezaguna da irakasten zituzten hizkuntzen artean, latina, frantsesa, ingeleza, italiara eta, Mintegiko erregelamenduaren IX artikulua espresuki zioenez, *las nacionales, como son el Bascuence y el castellano*. Eta jakina da, neronek iragarri legez beste zenbait agiriren aurrean sumatu nuen bezala<sup>4</sup>, 1783an, beste ariketen eta hizkuntzetako antzerkien artean, ikasleek antzestu zutela “un diálogo bascongado”<sup>5</sup>.

1773an Daguerrek sortu zuen Larresoroko seminarioa Lapurdin eta bertako irakasle izan ziren Martin Duhalde, Bernard Larregi eta Jean Robin. Hiru idazle zeinen lanetarik aurki daitezkeen *Bertso zahar eta berri zenbaiten bilduma (1798)*<sup>6</sup> liburuan.

XIX. mendean bertan ikasi zuten liburu ederren egile izan ziren hainbat apaiz eta idazlek, latinez, grekoz, frantsesez eta euskarazko konposiziotan trebatuz. Azken hauek idazteko, noski, ereduren batzuek beharko zituzten eta hauek irakatsiak izan. Hona hemen azterketa gai bat, Piarres Andiazabalek gordetzen diuen “compositions littéraires” edo azterketen nota-koadernoak arakatzu.

XIX mendeari dagokionez, Toulouseko Unibertsitatean, grekozko irakasle eta letretako Fakultatean idazkari zen Fleuri Lécusek, eta Darrigolen adiskide zenak argitaratu zuen mendeko lehenetariko euskal gramatika bat Michel Abadiak, Antonen aitak, diruz pagatua, honako tituluarekin: *Grammaire basque* (Toulouse, 1826)<sup>7</sup>.

Iparraldeko eskola publikoetan, Pierre Hourmat<sup>8</sup> historialariak esaten digunez bere liburuan, honako euskarazko obrak erabiltzen zituzten frantsesez

---

4. URKIZU, P. (1984) *Euskal Antzertia*, Eusko Jaurilaritza, Donostia, 88.

5. ALTZIBAR, X. (1985) “Euskara Adiskideen batzarrean”, *Symbolae Ludovico Mitxelena...* Vitoria-Gasteiz, 1.121.

6. URKIZU, P. (1987) *Bertso zahar eta berri zenbaiten bilduma (1798)*, Durangoko Udala.

7. LAKARRA, J. A. (1987) “Lécuse-ren euskal gramatika, (Euskalaritzaren historiarako lana-besak)”, *ASJU*.

8. HOURMAT, P. (1973) *L'enseignement primaire dans les Basses-Pyrénées en temps de la monarchie constitutionnelle (1815-1848)*, Anglet.

koez aparte: – *Dotrina*; – *Jesu Kristoren imitazioea*; – *Kantikak*, – *Eukologia ttia*, – *Liburu spiritualak*; – *Exercicio spiritualak, eta* – *Testament berriko historia*.

Jean Pierre Darrigol (1790-1829), Baionako Seminarioan buru izandakoak euskarari buruz liburu bat argitaratu zuen 1827an *Dissertation critique et apologetique sur la langue basque*, (Baiona, 1827). Orduan Miarritzen zelarik bere familiarekin, Michel Abbadiak liburuia erosi eta idatziko dio egileari Volney sariara aurkez dadin, zeren Renouaird epaimahaiko idazkariarekin zituenez tratuak Abbadia jaunak, Tolosa utzi eta Parisen jadanik zenak, zioenez, zerbait lortzea espero zezaketen. Hala egin zuen eta Volney saria lortu zuen *Analyse raisonné du système grammatical de la langue basque* obrarekin.

Darrigolen asmoen artean zegoen Euskal Akademia bat sortzea, baina gazte hil zen, asmoa burutu gabe, eta bere ondoren izan zirenek seminarioko buru ez zioten jarraitu haren bideari, eta Anton Abbadiak bere poltsikotik euskal katedra bat sortu nahi izan zuen arren, ez zuen lortu baimenik.

Joseph August Chaho (1811-1858) euskal lehen kazetaren sortzailea, honako gauzak esaten eta idazten zituen, euskararen eta euskal literaturaren irakaskuntzaz, *Le basque de Sare, de Saint-Jean-de-Luz et de la côte, voilà le dialecte qu'il faut étudier de préférence, qu'on doit être jaloux de conserver et de reproduire sans cesse*<sup>9</sup>. Alegia, Sara, Donibane Lohitzune eta kostako euskara, horixe zela batez ere ikasi behar zena, kontserbatzeaz eta erabiltzeaz harro sentitu. Eta halaberetsu:

Il faudrait aux Basques un Institut national, une Académie par sections de tous les arts et de toutes les sciences, c'est-à-dire une civilisation indépendante, un ministère de l'Instruction publique que nous n'aurons peut-être jamais, l'emploi exclusif de la langue euskarienne dans les écoles, à côté de cela, les bibliothèques, la littérature, les livres qui nous manquent; il nous faudrait en un mot tout ce que nous n'avons pas, et ce que les grands nations n'ont acquis elles-mêmes qu'à l'aide des siècles<sup>10</sup>.

Euskaldunek Institutu Nazional bat beharko luketela, Akademia bat arte eta zientzia guztietako sailez osatua, erran nahi baita, zibilizazio independente bat, Irakaskuntza Publikoaren Ministerioa, agian sekulan izanen ez duguna, euskara bakarrik erabiltzea eskoletan, eta honen aldamenean, liburutegiak, literatura eta behar ditugun liburuak, hau da, hitz batez, ez dugun guztia, eta nazio handiek mendez mende lortu dutena.

Patxi Altuna, "Aita Jose Inazio Arana (1838-1896)" jesuitaz mintzo delarik beste honakoa dio,

---

9. *Le Messager de Bayonne*, 1854, n° 386, 2, ik. URKIZU, P. (1991) "Agosti Chahoren hiztegia", *ASJU*, 349-361.

10. CHAHO, J. A. "Introduction philologique, grammaticale et littéraire", *Dictionnaire basque, français, espagnole et latin, d'après les meilleurs auteurs classiques, et les Dictionnaires des Académies française et espagnole*, Bayonne, 1855-1857, 30.

[...] izan zen Lagundian lehenbiziko aldiz, guk dakigula, euskara ikasteko eskolak, Akademiak sustatu zituena (1866an), astean behin –ostegunetan komunzki– biltzen zirelarik zortzi edo hamar lagun Aranaren gidaritzapean. Eta hori Poyannen, desterruan.... Eta hori Orixek Oñan 1920an egin zuen baino berrogeita hamar urte lehenago, goiti-beheiti, beste inongo fraide etxetan egiten ez zen garaian, dakigula<sup>11</sup>.

Anai Abaitua bizkaitarra, Anai Alberdi arrasatearra, eta Juan Jose Urraburu zeauritarra horko kide izan ziren eta zenbait poematxo ere idatzi zituzten, Aranaren zuzendaritzapean, Altunak bere artikulu horretan ematen dizkigunak

1888an Bizkaiko Diputazioak deiturik Euskal Katedra baterako lehen oposizioak izan ziren eta bertara Miguel de Unamuno, Sabino Arana eta Resurrección María de Azkue aurkeztu ziren. Bozketetan Unamunok, Letretan doktore zenak 3 eta Azkue batxilerrak 11. Honen irakaskuntzak (1888-1904) epean iraun zuen, bertan euskal gramatika ez ezik berak idatzitako antzerkitxoak ere antzetzarazten zien ikasleei. 1904tik aurrera zenbait urtez, Kirikiño izan zuten irakasle...

1897an Iruñean izan zen beste oposaketa bat euskal katedra baterako, baina tamalez ez baitzuten irakasle egokirik aurkitu, Kanpion, Azkue eta Legazek hutsik utzi zuten.

1914an Donostian *Cátedra de Declamación Vasca* delako bat sortu zuen Udaletxeak, zeinen egitekoetarik zen euskara ikasteaz gain

...instruir a los alumnos en aquellos conocimientos relacionados con el Teatro en su aspecto general, haciendo al propio tiempo las oportunas aplicaciones al especial carácter a que se contrae esta clase: enseñara a leer y declamar en euskera con la Posible perfección...

Noski, ezaguna den bezala, Toribio Alzaga antzerkigilea izan zen katedra-  
ren irabazle eta gerra hasi arte eten gabe ibili zen euskara eta antzertia irakasten eta antzez emanaldiak Euskal Herrian zehar hedatzen. Shakespeare, Molière, Loti, eta batez ere hau bere *Ramuntxo* obrarekin izan ziren besteen artean, autore antzeztuak.

Urte horretan (1914) Muñoa jaunak sortu zuen Donostian Koruko Andre Mariaren Ikastetxea, eta honen ereduari jarraiki zioten Lekarozen (1919), Tolosan (1922), Errenterian (1928), Iruñean eta Lizarran (1932)... Liburuetan eza-  
gunenetakoa Ixaka Lopez Mendizabalek bildutako testuekin eta Txikiren irudiekin borobildutako XABIERTXO. Eusko Ikaskuntzak 1923an antolatu saria irabazi zuena, eta ONUK haurrentzat euskaraz ofizialki onartutako lehen liburua. Hor irakurri eta hortik ikasi genituen gaztetxo ginelarik buruz euskal zenbait poema.

---

11. ALTUNA, P. (1998) "Joan zen mendeko Jesuita gazteen euskal olerkiak", *Studia Philologica in Honorem Alfontso Irigoien*. Deustuko Unibertsitatea, 255-263.

Baina jo dezagun atzera. 1921ean Toulousen Pierre Lhandek<sup>12</sup> zeukan Letretako Fakultatean euskal literaturaren ardura. Bera zegoen ikastaroak emateko karguan, eta arrakasta handiz udan amaieran sei hitzaldiok eman zituen Select-Cinema, Salle Jeanne d'Arc izeneko aretoan:

1. Préliminaires. I. Le Décor.  
II. Le cadre historique.
2. La littérature basque à vol d'oiseau.
3. Le Villon Basque: Etxahoun (1786-1862), (Avec audition de chants totalement inédits).
4. La Poésie Légendaire.
5. La Renaissance Contemporaine.

1922an Eusko Ikaskuntzak eratu zuen bere III Kongresua Irakaskuntzaz Gernikan, eta Unibertsitatekoaz arduratu zirenak, Aranzadi, Zaragueta, Egu-ren eta Apraiz jaunak izan ziren. Bertan kanpoko unibertsitateetako irakasle askok parte hartu zuen, eta haien artean, Albert Léonek, zein aditz trinkoaz mintzatu zen. Beraz, besteen lanek bezalaxe, euskara zuten ikergai, baina ez euskal literatura, adibidez W. Meyer-Lübkeren hitzaldiak<sup>13</sup> honako titulua zuen: "La organización de los estudios lingüísticos en la Universidad Vasca".

Bordeleko Unibertsitatean Bigarren Mundu Gerla bukatutakoan, euskal katedra René Lafon irakasleak hartu zuen eta ikerketa anitz egin zuen euskara eta hizkuntza kaukasiarren harremanak aztertzen, eta 1944an argitaratu tesia<sup>14</sup> burutzeko XVI. mendeko autoreak aztertu zituen. Hala ere, ez zuen ahortzi besteak beste, Etxepare eta Oihenarten bertsoak frantsesera itzultzea, eta ohar interesgarriz hornitzea.

Salamanca Unibertsitateak Cátedra Larramendi delako bat ireki zuen 50. hamarkadan Antonio Tovarren zuzendaritzapean eta bertan izan zen irakasle zenbait urtez Koldo Mitxelena, ni bere ikasle izan nintzelarik. Batez ere, Erdi Aroko kanten azterketa filologikoak egiten zituen. 1968an hasi zen Urkixu mintegia, Mitxelena eta Agud buru zituelarik, *ASJU*n bere lanak euskal hizkuntzaz eta literaturaz argitaratzen.

Dena den, Jean Haritschelhar<sup>15</sup> izan zen lehena Albert Léonenaren ondoren (1909), ez banabil oker, II Mundu Gerraren ondotik literatur tesi bat argitaratzen euskal literaturaz, gaitzat Pierre Topet-Etchaun (1786-1862) eta XIX. mendeko euskal herri poesia hartu zituelarik, 1969an, hain zuzen.

---

12. URKIZU, P. (1999) *Pierre Lhande (1877-1957)*, Bidegileak, Eusko Jaurlaritzza, Gasteiz.

13. Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, *III Congreso de Estudios Vascos*. Gernika 1922, 1923, 149-154.

14. LAFON, R. (1944) *Le système du verbe basque au XVI siècle*, Delmas, Bordeaux.

15. HARITSCHELHAR, J. (1969) *Le poète souletin Pierre Topet-Etchaun (1786-1862), Contribution à l'étude de la poésie populaire basque du XIXe siècle*, Société des Amis du Musée Basque, Bayonne.

Hirugarrena, Patxi Altunak<sup>16</sup> Etxepareren obrak eta, bereziki, metrikaz eta hiztegiak idatzitakoa dela esango nuke, hamar urte geroago plazaratua (1979).

Euskararen ofizialtasuna proklamatu zenetik, 1977an Koldo Mitxelena Salamanca utzi eta Gasteizera etorri zen, bertan Euskal Filologia lizentziatura sortuz (1978ko martxoan).

1980an sortu ziren Batxiler Institutuetako Euskara eta Euskal Literaturako lehen katedrak eta hamar lehen katedradun haiek izan ziren: Alfontso Irigoien, Xabier Kintana, Patri Urkizu, Jose Antonio Mujika, Juan Antonio Letamendia, Mikel Arregi, Xabier Olarra, Xabier Altzibar eta Miren Egaña.

Jean Haritschelhar eta bere ondoren Jean-Baptiste Orpustan izan dira Euskal Hizkuntza eta Literatura Katedra izan dutenak Bordeleko Michel de Montaigne-Bordeaux 3 Unibertsitatean. Ni neu *lecteur* gisara aritu nintzen bertan, Koldo Zuazo, Xabier Olarra, Txomin Sagarzazu eta beste aritu ziren moduan. Gaur egunean, Aurelia Arkotxa da Euskal Ikasketen arduraduna Michel de Montaigne-Bordeaux 3 Unibertsitatean. Charles Videgainek, ordea, beste euskal katedra bat du Université de Pau et des Pays de l'Adour (U.P.P.A.) delakoan. Euskal unibertsitate ikasketa osoak (lizentziatura, tesina, doktoregoa, CAPES delakorako irakaskuntza-oposaketak) Baionako Faculté Pluridisciplinaire delakoan egiten dira. Azken fakultate hau Bordeaux 3 eta U.P.P.A. delakoaren ardurapean dago. Esandakoez gain, iparraldeari dagokionez, aipagarria da Beñat Oihartzabalen ardurapean dagoen IKER-UMR 5478 Ikerketa Taldea, CNRSeko (Centre National de la Recherche Scientifique), Bordeaux 3ko eta UPPAko ikerlariak biltzen dituen.

Nik euskaraz aurkeztu nuen arren nire tesia, hau lexikografiaz izan zen beka-emaleek hala agindu zidatenez, –eta hain zuzen Pierre D'Urteren hiztegia argitaratu nuen<sup>17</sup>–, beraz, euskaraz euskal literaturaz argitaraturik izan den lehen tesia, oker ez banago, Ana Toledorena da (1989), Txomin Agirreraren nobelagintzaz idatzia<sup>18</sup>. Bigarrena, Xabier Altzibarrek bizkaierazko idazle klasikoez egindakoa da eta 1990ean pasatua<sup>19</sup>.

Hona euskal literaturaz euskaraz aurkeztutako beste zenbait tesiren zerrenda:

1990, Juan Kruz Igerabide, *Herri poesia eta gerraurreko lirika: Lizardi-Lauaxeta-Orixe*.

1991, Josu Pikabea, *Literatur lapurtarraren bilakaera*.

1992, Lourdes Otaegi, *Lizardiren poetika pizkundearen ingurumariaren argitan*.

---

16. ALTUNA, P. (1979) *Versificación de Dechepare, Métrica y pronunciación*, Mensajero, Bilbao.

17. URKIZU, P. (1989) *Pierre d'Urteren hiztegia*. Londres 1715, 2 V. Mundaiz, Donostia.

18. TOLEDO, A. (1989) *Domingo Agirre: Euskal eleberraren sorrera*, Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbo.

19. ALTZIBAR, X. (1992) *Bizkaierazko idazle klasikoak. Mogeldarrak, astarloatarrak, Fray Bartolome. Nortasuna, Idazlanak, Grafiak*. Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo.

- 1993, Iñaki Mozos, *Jean Parisen tragedia. Eskuizkribuen azterketa eta iturriaren moldamoduak*. (Argitaragabea)
- 1994, Juan Otaegi, *Adjetiboa Euskal Literaturan*.
- 1996, Patxi Salaberri, *Axularren prosa erretorikaren argitan*.
- 1997, Xabier Etxaniz, *Euskal Haur eta Gazte Literaturaren Historia*. Iruñea, Pamiela.
- 1997, Maria Jose Olaziregi, *Literatura eta irakurlea. Testu estratejietatik soziologiara Bernardo Atxagaren unibertso literarioan*.
- 1998, Fidel Altuna, *Belapeirez*.
- 1999, Joserra Gartzia, *Gaur-egungo bertsolariaren baliabide poetiko-erretorikoak*. (Marko teorikoa eta aplikazio didaktikoa).
- 1999, Jose Manuel Lopez, *Euskarara itzulitako haur eta gazte literatura. Funtzioak, eraginak eta itzulpen-estrategiak*.

Beste hamaika tesigai gehiago ere badira, noski, mereziko luketenak sa-kontzea eta aztertzea, hala nola, Aurelia Arkotxak Université Michel de Montaigne-Bordeaux 3 delakoan Gabriel Arestiren *Maldan beheraz buruturikoa* (1990), Ur Apalategik U.P.P.A.n Atxagaz moldatutakoa (1998), eta Jon Casanavek U. Michel de Montaigne-Bordeaux 3 delakoan Jean Etcheparez (1997) irakurritakoa. Hirurak dira irakasle, gaur egun, iparraldeko unibertsitate desberdinetan (Bordeaux 3 eta U.P.P.A.).

Iruñeko Unibertsitatean Ana Etxaideren esku dago Euskal Ikasketen antolaketa.

Deustuko Unibertsitatean Euskal Filologia urte zenbaitez irakatsi bazen, batik bat Patxi Altunaren zuzendaritzapean Donostiako Campusean, orain lizentziatura hau amaitzen ari da eta ez dago matrikula irekirik lehen urteetan.

Madriko Unibertsitate Konplutensean Carlos Cid itzultzailea dabil orain irakasle, baina nik dakidalarik asoziatu gisa lan egin du.

Bartzelonako Unibertsitatean egon zen Ibon Sarasola euskara eta euskal literatura irakasten, 91-98 urteetan, uste dut.

Estatu Batuetan Reno, Iowa, New York eta beste Unibertsitatearen batean ere euskal literatura irakasten da, antza. Hauetako batean ondo informaturik banago Joseba Gabilondok emakume euskaldunek idatzitako literatura beste herrialdekoekin konparaturik irakasten du.

Erromako *Universita della Sapienza* deituan ere, badirudi baten batek euskara ere irakasten duela.

Eta azkeneko hamabi urtetan nik Madriko UNEDen Euskal hizkuntza eta literaturaren titularitatea daukat, 90an irabazia oposizioz, lehen titularitatea Espainia osoan, Euskal Herritik kanpo, eta *Revista de Lengua y Literatura Catalana, Gallega y Vasca* delakoaren zuzendarikide naiz, urtero antolatzen diren jardunaldien aktak jasotzen dituen.



*Pro Domo* mintzatu behar naizelarik ere, esan dezadan, lexikografiaz egin banuen ere tesia baditudala hainbat lan euskal literaturaren historian funtsezkoak kontsideratzen ditudanak, horietarik hiru besterik ez ditudalarik aipatuko: a) Euskal lehen kantutegiaz burutua eta Iparraldeko Unibertsitatean testu-liburu gisara erabili dutena<sup>20</sup>; b) Astolasterren bilduma<sup>21</sup>, eta d) Anton Abbadiaren Lore Jokoez burutua<sup>22</sup>.

Bestalde, idazlea eta kritikariaren konpromisoa kontutan harturik, esan dezadan Euskal Idazleen Elkarteko zuzendari nintzela hasi zela 1992ko urtarriaren 14ean *Idazleak Ikastetxeetara* programa lehen aldiz, orain arte jarraitzen duena, eta non ikasleek, bai txikiek bai handiek idazleekin harreman estuagoa izateko aukera duten.

---

20. URKIZU, P. (ed.) (1986), *Bertso zahar eta berri zenbaiten bilduma (1798)*, Durangoko Udala.

21. URKIZU, P. (1998) *Zuberoako Irri-Teatroa. Recueil des farces charivariques basques*. Préface de Jean-Baptiste Orpustan, Izpegi, Baigorri.

22. URKIZU, P. (1997) *Anton Abbadiaren Koplarien Guduak. Bertso eta aire zenbaiten bilduma. 1851-1897*, Eusko Ikaskuntza-Euskaltzaindia, Donostia.